

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan bezeroari eskainiko diogun produktua definituko dugu. Gure produktuaren ezaugarriak osotasunez adieraziko ditugu; funtzioa, zein arazo konpontzen edo zein behar asetzen duen eta gure proiektuaren izaera berritzailearen zergatia. Gure ideiarekin alderdi azpimarragarriak zeintzuk diren argi eta garbi deskribatuko ditugu (prezioa, kalitatea, segurtasuna...).

Gure produktuak izaera berritzailea du. Gaur egun sortzen den guztia dirua irabazteko helburuarekin egingo da, honen adibide garbia gailu teknologikoak egiten duten enpresak dira. Guk, ordea, gizakiaren ongizatea bilatzen saiatu gara, gure bezeroek dirua aurreztu dezaten eta aldi berean, aldaketa klimatikoa hobetzen, etorkizun on bat lortuz. Kalitate hoberean lortzeko, hornitzaile desberdinekin harremanetan jarriko gara. Hauek gertukoak izango dira garraioan gastuak eta kutsadura murrizteko, hau da, km0.

Hasteko, sentsorea gure iturrietan ezarriko da, azpiko aldean, iturriari hasiera ematen zaion lekuan; izan ere, gure eskuen altuerara egokitzen den leku aproposa da eta horrela efizientea izango da. Irudian ikusi daiteke gure iturriak zer nolako itxura izango duen. *Scratch* programaren bitartez, sentsorearen programazioa bideratuko dugu aginduak emanez. Honek 10 cm-tako gertutasuna nabaritzen duenean, urari sarbidea emango dio.

Sentsoreak kalterik ez jasateko eta babesa emateko, lauki formako kaxa batekin estaliko dugu. Gainera, bi botoi izango ditu bata pizteko eta beste itzaltzeko, horrela, iturriari erabilerarik ematen ez zaionean itzalita mantenduko da, alperrik ura ez kontsumitzeko. Horrez gain, kaxaren aurpegiaren erdian, zulo bat egingo dugu sentsoreak kanpoko aldeko mugimenduak antzemateko. Kaxaren materialari dagokionez, aluminiozko xafak erabiliko ditugu hau sortzeko, 5 zati elkartuz eta hauek soldatuz. Aluminio herdoilezinez baliatuko gara; izan ere, material iraunkorra da eta urteen poderioz ez da hondatzen.



Gure produktuaren prezioa finkatu dugu, 600€ hain zuzen ere. Kontuan izan behar da prezio honen barne produktuaren instalazio prozesua eta 2 urtez eskaintzen dugun dohainiko berrikuspena ditugula.